



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

HLHI ALBIZ

Ikastetxearen kodea:

014330

Data:

2023(e)ko ekainaren 15(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Gure eskola Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bat da, D ereduakoa, bi lerrokoa, Lehen Hezkuntzako 6. eta 3. mailetan izan ezik, hauetan hiru gela baititugu. Guztira 456 ikasle daude: 8 gela ditugu Haur Hezkuntzan, 14 Lehen Hezkuntzan eta gela egonkorra. 2022-2023 ikasturtean 47 irakaslez osatutako klaustroa daukagu, eta apurka apurka behin betiko irakasleen kopurua handituz doa. Honi esker eskolako proiektuen oinarri diren printzipio metodologikoen jarraipena eta klaustrokideen inplikazioa errazten da. Zuzendaritza-taldeak arreta berezia eskaintzen dio ikastetxeko Harrera Planari, sartu berriek norabide berean lan egin dezaten eta klaustroko kide guztien artean planteatutako helburuak lor ditzagun.

Ikastetxea Albiz auzoan dago, Sestaoko erdialdean. Maila sozioekonomikoa ertain gisa sailka daiteke eta, oro har familia gehienak bertakoak dira. Azken ebaluazio diagnostikoaren arabera, ikastetxearen ISEC "2" da, eta emaitza akademikoak antzeko ezaugarriak dituzten beste zentro batzuen antzekoak dira. Eskolak bi eraikin ditu: eraikin nagusiak 4 urtetik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ikasleak hartzen ditu, eta beheko eraikinak (kalea gurutzatuz) 2 eta 3 urteko ikasleak. Baldintza horrek ahalegin handia eskatzen dio zuzendaritzari telefono bidezko komunikazio egokia eta denborak malgutasunez kudeatzea bermatzeko. Gainera, eraikin horretan jangela bat jarri zen, ikasle txikienei zerbitzua eskaintzeko. Goiko eraikinak jangela bat ere badu, handitu egin zuten eta une honetan 180 laguntzako lekua du.

2019-2020 ikasturtean Eusko Jaurlaritzaren diruz lagundutako gimnasio berriaren obra bukatu zen. Eraikin nagusiari atxikitako gimnasio estalia da eta kanpoko patioetara irteten da. Barruko gimnasioa (psikomotrizitate gela) eta 3 patio ere baditugu, porteriak, saskiak eta zabuak dituztenak. Espazioen hornidura horrek ikasgelako banaketak eta antolaketa malguak egiteko potentzialtasuntzat jotzen dugu, irakaskuntza-ikaskuntza jardueretan orientazio berritzailearen aldeko apustua eginez.

Orokorrean familiek eskolako eguneroko ekintzetan parte-hartze ona dute. Azpimarratzekoa da guraso-elkartearen inplikazioa hainbat jardueretan (ikastetxeko espazioak apaintzean, lankidetzaren ekonomikoa; Olentzeroren opariak eta ikasturte amaierako festa, ekainean eskolako jaia antolatzea) eta eskolaz kanpoko jardueren eta beste zerbitzu batzuen kudeaketan. Hala ere, beharrezkoa da ikastetxeko familien parte-hartzea areagotzea, udal-mailan antolatutako prestakuntza-saioretan, eta familiak hezkuntza-komunitateari eragiten dioten proiektuetan inplikatzearen alde egitea.

Eskolak 6 proiektu handi ditu:

-NORMALKUNTZA: 20 urte baino gehiago daramatzagu ikastetxean hizkuntza-normalizazioko proiektu batekin. Une honetan ekintza ugari antolatzen dira proiektu honen bidez: irratsaioak, ikastetxeko maskota (Sugartxo) agertzea, Olentzeroren jaiak/ Inauteriak/Ikasturte amaiera, ipuin lehiaketak, barnetegietan egonaldiak...

-HEZKIDETZA-BIZIKIDETZA: Proiektu honek eragin handia izan du ikastetxean, eta gero eta ekimen gehiago bultzatu ditu: "Ikasle Laguntzailea", "Adostoki", "Bizikidetzaren Behatokiaren" bilerak, "Bat taldea". Ekimen horien azken helburua da ikastetxeko giro positiboa bultzatzea eta gatazkak behar bezala konpontzeko teknikak eskaintzea.

-STEAM: 2020-2021 ikasturtean STEAM proiektua lortu genuen. Robotika eta programazioa lantzen ditugu (Beebot, Lego WEDO, Code.org eta Scratch). Helburua da ikasleek teknologia- eta matematika-gaitasuna garatzea eta, aldi berean, hizkuntza-gaitasuna ingelesez garatzea, tailerrak hizkuntza horretan ematen baititugu.

-ERASMUS+: Proiektu berri honi ere 2020-2021 ikasturtean ekin genion, eta, haren bidez, irakasleek Europan barrena mugikortasunak egiten dituzte, ikastetxeak dituen beharretan trebatzeko eta, ondoren, ikasitakoa klaustroan zabaltzeko eta aplikatzeko. Hauek dira prestakuntza-bloke nagusiak: Steam, Ikaskuntza eta Zerbitzua (proiektuen araberrako ikaskuntza-metodologia) eta Mindfulness. Europar Batasunak finantzatutako proiektua da, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroetan punta-puntakoa.

-ELEANIZTASUNERANTZ-PLURILITERACIES: 2022-2023 ikasturtean lehenengo aldiz dugu proiektu hau eskolan. Hizkuntzen trataera bateratua da proiektu honen helburu nagusia, eta horretarako ikasgai bat atzerriko hizkuntzan landuko dugu atzerriko hizkuntza ikasgaiak gain. Irakasleen ingeles maila hobetzeko eguerdietako eskusiba saioretan ingeles ikastaroak antolatu ditugu eta 15 bat irakasle joaten dira saio hauetara. Hiru urtetan beraien ingeles maila hobetzeko konpromezua adierazi dute, hizkuntz eskoletako azterketetara aurkeztuz. Proiektu honi esker, AEB-tatik etorritako "language assistance" bat dugu aurten, lehen hezkuntzako ikastalde guztietan astean behin sartzen dena ahozko ulermen eta adierazpena lantzeko.

-IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA: Balio zibiko eta etikoko saioetan proiektu hau aurrera eramaten dugu lh-ko bigarren mailatik seigarren arte. Proiektu hauen bitartez ikasleen oinarrizko jakintza desberdinak landu eta barneratzen dituzte, eta ondoren inguruko gizarteari zerbitzu solidario bat egin duten bitartean. Adibidez, lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasleek giza gorputzeko zirkulazio aparatua landu dute gelan eta ondoren honekin loturik osakidetzako odol bankuaren kontaktuan jarri eta hilean behin herrira etortzen den autobuserako emaleen jasotzea egiten dute. Jarduera hauen berri ordenagailuz sortutako kartelen bitartez burutzen da.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Goiko zein beheko eraikinetako ikasgela bakoitzean CPU bat dago irakasleek erabiltzeko. Honekin batera, Multiclass edo newline pantaila interaktibo berriak ditugu LH-ko maila guztietan 4. mailan izan ezik. Musika, liburutegi eta ingeles geletan baita ere baditugu. Gainontzeko ikasgeletan (hh, lh 4. maila, gela egonkor eta laguntza geletan) PDI-ak daude. Azken hauek nahiko zaharkiturik daude, baina etorkizun hurbil batean aldatu eta beste geletan dauden antzeko gailuak ezarriko dizkigute. Irakasleek erabiltzeko 9 ordenagailu eramangarri ditugu eta 3. zikloko tutoretza eta irakasle gelaren artean beste 5 CPU. Orain arte, ikasle bekadunek dirulaguntza bat jasotzen zuten chromebookak erosteko eta eskolan ditugun 100 chromebookekin 2. mailatik gorako ikasleen 100%-ak chromebook bat zuen eskolan erabiltzeko, baina dirulaguntza hauek bukatu egin dira eta hemendik aurrera ezinezkoa egingo zaigu ikasle guztiak gailu digital bat izatea beraien jardunak aurrera ateratzeko.

Konektibitateari dagokionez, ikasgela bakoitzean interneterako kable bidezko konexioa dugu eta 2019-2020 ikasturtean, WIFI guneak ditugu eskolako eraikin nagusian; beraz, 4 urtetik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarteko gela guztietan WIFI bidez konekta gaitzake. WIFI puntuak pasabideetan daude eta pasabide bereko 3 gelak hornitzen ditu. Beheko eraikinean (2 eta 3 urte) ez dugu WIFI konexiorik.

Eskolako webgune berria du, non eskolaren inguruko informazio erabilgarri, historia eta berriak argitaratzen diren. Eskolako ekintza desberdinak sare sozialen bitartez zabaltzeko Facebook eta instagram perfilak ditugu. Eskolako irakasle zein ikasle guztiok eskola domeinuko email kontu bat daukagu. G-SUITEko aplikazioen erabilpena egiten dugu. Adibidez, gurasoekin harremanetan jartzeko gmail erabiltzen dugu. Google classroom-en erabilera ziklo guztietan zabalduta da eta liburu digitalen plataformak erabiltzen ditugu. Hauxe gain, canva, genially, liveworksheets eta kahoot bezalako plataformak erabiltzen ditugu eguneroko irakaskuntza jardueretan.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikastetxe publiko guztietan proiektu digital bat sortu behar dugu 2022-2023 ikasturtean. Ikastetxeari norabide digital bat emateko aukera bat da, azken urteotan IKTen alde egin den apustua garrantzitsua izan baita eskolan, baita gizartean ere. Ohiko tresnak eta baliabideak dira gure errealitateko lanetan, aisialdian, izapide publikoetan... eta, horregatik, eskolatik sustatu eta normalizatu egin behar dugu haien erabilera, gure ikasleen gaitasun digitala egokia izan dadin etorkizuneko erronkei erantzuteko.

Proiektu digitala izateak abantaila ugari dakartza:

- Eskola-komunitate osoa orientatzea helburu batzuk lortze aldera.
- Zentroko baliabide digitalak eta giza baliabideak antolatzea etekinik handiena ateratzeko.
- Irakasleen arteko koordinazioak sistematizatzea.
- Baliabide digitalak partekatzeko sistemak sortzea eta hobetzea.
- Azpiegiturari dagokionez, aurrerapen teknologikoak erregistratzea, administrazioarekin arlo horretako beharrak negoziatu ahal izateko.
- Hezkuntza-komunitateko eragileei abiapuntu digitala eta lortutako aurrerapenak ezagutaraztea.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasanak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Proiektu digitala sortzeko lehenengo pausoak 2021/2022 ikasturtean eman genituen zuzendaritzaren gidaritzapean. Emandako lehenengo urratsa eskolaren egoera adierazten zuen SELFIE-a egitea izan zen. Horrela eskolako egoeraren argazki bat lortu genuen. Honekin AMIA bete genuen, non eskolaren indargune eta ahultasunak identifikatu genituen. Ondoren proiekturako helburuak zehaztu genituen eta helburu hauek lortzeko aurrera eraman beharreko ekintzak finkatu genituen, dagokien ebaluazioarekin.

Lan guzti hau aurrera eramateko ondorengo dinamikak jarraitu genituen: Lehenik, zuzendaritza taldeak antolatzen zuen formakuntza saio bakoitzean landuko genuen atala. Horretarako irakasle denak elkartu eta egun horretan landuko genuen atalaren azalpena jasotzen genuen zuzendaritzaren partetik. Jarraian taldetan banatzen ginen eta talde bakoitzak bere ekarpenak egiten zituen atal horren inguruan. Azkenik ekarpen guzti horiek amankomunean jartzen zituen zuzendaritza taldeak.

2022/2023 ikasturteko irailean digitalizazio batzordea sortu genuen, eta zuzendaritzarekin batera ikasturte honetan zehar proiektu digitalari forma ematen aritu gara aurreko ikasturtean ekindako lanari jarraipena emanez. Horretarako zonaldean dagokigun mentorearekin bildu gara eta aldiro egin diren bileretan parte hartu dugu, zalantzak argitu eta informazioa amankomunean ezarriz.

Etorkizunari begira, proiektu digitalaren eragilea IKT batzordea izango da eta bertako partaidea, betiere zuzendaritza taldearekin lankidetzan eta koordinazio estuan.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu Digitalari esker, argi daukagu zein diren ikastetxearen helburuak azpiegiturari, ikasleen irteera-profilari (konpetentzia digitala), networking-ari eta ikastetxearen komunikazio-kanalei dagokienez. Era berean, badakigu zer jarduera egingo ditugun helburuak eta baliabideak lortzeko, denboralizazioa lortzeko, arduradunak...

Alderdi horiek ikastetxeko beste dokumentu ofizial batzuetan islatzen dira neurri handi batean, hala nola Urteko Planean eta Hezkuntza Proiektuan.

· Lehenengoan, proposatutako helburuak lortzeko ikasturte batean egin beharreko urratsak zehazten ditugu. Helburu horiek lortzeko, IKT tresnak ikasgelan eta ikastetxeko gainerako guneeetan erabiltzen diren baliabide inportanteak dira; jantokia, aholkularitza, idazkaritza, zuzendaritza. Gainera, proiektu digitalak zehazten du urteko helburuen lorpen-maila, hau da, zer helburu bete behar diren ikasturte bakoitzean. Beraz, datorren ikasturtean egin beharrekoak hurrengo ikasturteko Urteko Planean jaso beharko dira. Horrelakorik lortzen ez bada, Urteko Planaren memorian azalduko da.

· Hezkuntza-proiektuan, plan digitalak garrantzia du hainbat ataletan. Gure eskolaren printzipioei buruz hitz egitean, IKTei ematen diegun garrantzia nabarmentzen dugu, gure gizartean duten erabilgarritasun handiagatik. Metodologiaren atalarekin ere lotura zuzena du; izan ere, ikasgela antolatzeko moduak zuzenean eragiten du baliabide digitalen erabileran, lineako lankidetzan-programetan, ordenagailuen edo tableten erabileran...

Ikastetxeko dokumentu eta plan guztiak aldian-aldian berrikusi behar dira, edukia eguneratzeko eta ikastetxeko errealitatera egokitzeko. Horien edukia elkarri lotuta eta koherentziaz idatzita dago, guztien helburua ikasleen arrakasta akademikoa baita.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

2021/2022 ikasturtean, zuzendaritza-taldeak, irakasleek eta ikasleek SELFIE tresnaren galdetegiak erantzungo dituzte. 8 kategorietan ateratako datuak aztertu ondoren, honako hau ondoriozta dezakegu:

A) LIDERGOA:

Irakasleek zein zuzendaritza-taldeek irakaskuntza-modalitate berrien aldeko apustua egiten dute. Izan ere, azken hori da estrategia digitala gehien aztertzen duena, bai irakasleekin, bai irakasleekin. Irakasleek denbora falta dute irakaskuntza digitala aztertzeko.

B) LANKIDETZA ETA SAREAK

Zentro batek lankidetzaren eta komunikazio-kultura sustatzeko aplikatu ditzakeen neurrietan oinarritzen da arlo hau. Ikasleek teknologiaren erabilerari buruzko galderak erantzun zituzten, irakasleek edo zuzendaritza-taldeak baino aldeko puntu gehiago emanaz. Profesionalen arteko lankidetzari dagokionez, irakasleek funtsezko zerbait baloratzen dute.

C) AZPIEGITURA ETA EKIPOAK

Ikastetxeak duen egitura txikiagoari dagokionez, hobekuntza ikusi dugu azken urteotan, eta ikaskuntzarako gailu digitalak dira eskolako espazio gehienetan ondoen baloratzen direnak eta Internetarako sarbide egokia dutenak.

CAUko teknikariak eskaintzen duten zerbitzua erabakitzailea da, baina zerbitzu hori eskuratzeko prozedura garestia da eta denbora asko galtzea dakar.

D) GARAPEN PROFESIONALA ETA JARRAITUA

Arlo hau ikastetxeak etengabeko garapen profesionalari laguntzeko duen moduan zentratzen da. Irakasleen iritziak, garapen horretan parte hartzea aldekoa da eta garapen-beharrak esanguratsuak dira. Zuzendaritza-taldeak hurbileko edo Europako herrialde desberdinetako beste ikastetxe batzuekin esperientziak trukatzearren alde egiten du.

E) PEDAGOGIA: LAGUNTZAK ETA BALIABIDEAK

Teknologia digitalen erabilera irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak berrituz prestatzeari dagokionez, baliabide horien bidez hezkuntza-komunitatearekiko komunikazioa eta lineako hezkuntza-baliabideak sortzea nabarmentzen ditugu. Ikaskuntza-ingurune birtualen erabilera hobetzeko atal bat ikusten dugu, irakasleek eta zuzendaritza-taldeak emandako puntuazioa tarteko puntuazioa baita.

F) PEDAGOGIA: IKASGELAN INPLEMENTATZEA

Ikasleek ikasleen beharren egokitzapenari, inplikazioari eta lankidetzari buruzko galderak erantzun dituzte. Egokitzapenari dagokion blokea da irakasleek eta zuzendaritza-taldeak baino puntuazio handiagoa lortzen duena. Zuzendaritza-taldeak sormena sustatzeari ematen dion garrantzia azpimarratu behar da. Diziplina arteko proiektuak garatzeko beharra hobetzeko bloke gisa.

G) EBALUAZIO-PRAKTIKAK

Arlo honen ardatza ebaluazio tradizionalago baten ordeztu praktiken multzo zabalago bat ezartzea da. Ondorioztatzen dugu irakasleen ehuneko handi batek ebaluazio digitalaren aldeko apustua egiten duela, batez ere lehen hezkuntzako maila altuenetan. Ikasleen baterako ebaluazioan puntuazio baxua lortu dugu eta, beraz, praktika hau prestatu behar dugu. Halaber, nork bere buruari hausnartzeko une gehiago eman behar dizkiegu ikasleei, ikasitakoa autoerregulatzeko aukera izan dezaten.

H) IKASLEEN GAITASUN DIGITALAK

Ikasleei IKTak behar bezala erabiltzeko aukera ematen dieten trebetasunei, ezagutzei eta jarrerari dagokienez, ikasleek (4,1) eta

irakasleek (3) portaera seguruari buruz duten pertzepzioaren aldea nabarmentzen dugu.
Irakasleek jarrera konprometitua dute edukien kodifikazioarekin eta programazioarekin, eta ikasleen puntuazioak babesten du.

AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

Gaitasun digital nahikorik ez duten irakasleak.

Irakas materiala sortzeko denbora falta.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Familien gaitasun digital eskasa.

Ez dugu jasotzen laguntza teknikoa edo oso mugatua da.

Irakasleek aisialdirako tresna gisa erabiltzen dute teknologia, eskolako lanak egiteko baino.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

Ikastetxeak estrategia digitala du.

Ikastetxeak eskola komunitatearekin komunikazio antolatua eta erregularra du.

Irakasleen arteko lankidetzak teknologia digitalen lanketarako.

Ikastetxeak esperientzia du ikasteko inguruneak erabiltzen.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

Ikastetxeak ondo antolatutako online baliabide digitalak eskura ditzake

Irakasleek sare sozialetan parte hartzen dute

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

- IKTen barne-prestakuntza jasotzen jarraitzea.
- Hainbat aplikazio oinarri metodologiko gisa erabiltzea.
- Eskola eta familien arteko komunikazioaren parte handi bat emailez egitea. Gogoraraztea kurso hasierako bileran ezinbestekoa dela gmailaren erabilera eskolarekin harremanetan jartzeko.
- Ikaskuntza ingurune birtualaren erabilera/sorkuntza bultzatzea.
- Barneko baliabideen banku bat sortu.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

- Esklusibetan denbora izatea material digitala eta fisikoa egin ahal izateko.
- Tutoreen ordutegian laguntza saioetatik baten bat erabili digitalizazioan aritzeko (materiala sortu...). Irakasleei denbora gehiago eskaini.
- Aplikazioak eta baliabideen formakuntza irakasleentzat.
- Beste eskolekin digitalizazioaren inguruan koordinatu, kohesioa izateko denon artean.
- Ikastetxeko IKTen arduradunari prestakuntza ematea eta saio libre gehiago izatea bere eginkizunak bete ahal izateko: arazoak konpontzea...
- Ordenaroreekin lan egiten dugun bakoitzean saioa antolatuta izatea, ikasleek ordenagailuaren erabilera hezitzailea bermatzeko, eta ez soilik jolas gisa

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

- Gurasoei aplikazioak behar bezala erabiltzeko prestakuntza ematea.
- Teknologia berrien bidez jokoa sustatzea, landutako edukiak indartzeko.
- Aukera ematea familiei oinarrizko formakuntza digitala jasotzera (AMPAREN bidez, udaletxea...).
- IKT figura aditu bat izatea, ordutegi finko eta zabal batez arazoak ahalik eta lasterren konpon ditzan.

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

- Ikastetxeko baliabide digitalen zerrenda hezkuntza komunitarearen esku egoteko.
- Prest garako ikastaroetan edo halakoetan parte hartzea.
- Beste zentrokoekin harremana izan, guztien indarguneak elkartrukatzuz hobetzeko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Irakasleen arteko proiektu digitala eta digitalizazioa aurrera eramateko eskolako digitalizazio batzordea sortzea.

Deskriptorea	Epea	
LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago	2022/09/15	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.1 A1 Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu e	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Klaustrokideen artean digitalizazio batzordean parte hartzeko interesa dutenekin elkartu eta batzordea sortzea.	Baliabide pertsonalak	Zuzendaritza taldea	2022/09/15	Egina

Helburua

Zuzendaritzak klaustrokideei helarazten dizkien lan, ataza edo komunikazioak tresna digitalen bidez egitea, komunikazioa eraginkorr eta azkarragoa izateko.

Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarriko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Familien iritzia jakiterakoan google forms bezalako aplikazioak erabiltzea.	Baliabide digitalak.	Zuzendaritza eta klaustroa.	2024/06/20	Prozesuan (%20-39)
Irakasleen arteko komunikazioa eskolako domeinuaren bitartez egitea.	Baliabide digitalak.	Klaustroa	2024/06/20	Prozesuan (%20-39)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aplikazioen bidez ikasgelan landutako edukiak indartzea, ikasleen parte hartzea eta interesa handitzeko.

Deskriptorea	Epea	
II 2.5 Ikaskuntza pertsonalizatua sustatzen da	2024/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 2.5 A1 Programazioen % ... tan, gutxienez, ikaskuntzaren diseinu unibertsalaren printzipioekin bat da	Ehunekotan	%20

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Sarean aurkitu eta interesgarriak izan daitezkeen aplikazioen aukeraketa.	Baliabide pertsonal eta digitalak.	Irakasleak	2024/06/30	Prozesuan (%20-39)
Aplikazioen bitartez edukiak lantzeko eta motibazioa handitzeko jardueren sorkuntza.	Baliabide pertsonal eta digitalak.	Irakaslegoa	2023/12/20	Hasita (%1-19)

GP Garapen profesionala

Helburua

Digitalizazio batzorde buruek formakuntza jasotzea eta beste eskolekin harremanetan jartzea erabiltzen dituzten teknologia berrien berri izateko eta beharrezkoa ikusi ezkerok gure eskolan txertatzeko.

Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketa premiekin	2024/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A1 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasleentzat, hainbat interes ped:	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Antolatzen diren formakuntza eta mintegietan IKT-arduradunak parte hartzea	Baliabide digital, teknologiko eta giza baliabideak.	IKT arduraduna	2024/06/20	Prozesuan (%20-39)

Helburua

Eskolako IKT-baliabide erabilera aurrera jarraitzeko eta hauen erabilpena bermatzeko irakasleentzat barne formakuntza eskaintzea.

Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerrokaturik dago banakako eta antolaketa premiekin	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.3 A3 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzea, baliabide digitalak sortzeko eta irakaski	Bai/Ez	Bai
GP 1.3 A1 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasleentzat, hainbat interes ped:	Bai/Ez	Bai
GP 1.3 A2 Ikastetxeak prestakuntza- edo lan-saioak antolatzen ditu irakasle-taldearentzat, ezagutza ho	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Formakuntza saioak eskaini irakasleei.	Baliabide digital eta pertsonalak.	IKT batzordekideak	2024/06/30	Prozesuan (%20-39)
Lan saio konkrituak izatea IKT baliabide hauetan trebatzeko eta materialak sortzeko.	Baliabide digital eta pertsonalak.	Klaustro osoa.	2024/06/30	Hasita (%1-19)

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Ebaluazioa eraginkorragoa izateko, 2. eta 3. zikloko ikasleen ebaluazioetan tresna digitalak txertatzea.

Deskriptorea	Epea	
EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da	2024/06/21	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.2 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek	Ehunekotan	%10

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Jarduera digitalak burutzea.	Baliabide digital eta teknologikoak.	Irakasleoa	2024/06/20	Prozesuan (%20-39)
Jarduera digitaletan berehalako zuzenketak txertatzea.	Baliabide digital eta teknologikoak.	Irakasleoa	2024/06/20	Hasita (%1-19)

EC Edukiak eta curriculuma

Helburua

Ikasleek Lehen Hezkuntza bukatzen dutenean aurretik irteeran profilan zehaztutako kompetentzia digitalen garapena bermatzea.

Deskriptorea	Epea	
EC 2.6 Ikasleen gaitasun digitala curriculum osoan garatzen da	2024/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 2.6 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare	Ehunekotan	%100

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Gelako jarduerak planteatu behar duten informazio digitala bilatzeko eta kritikoki ebaluatzea.	Baliabide digital eta teknologikoak.	Irakasleak	2024/06/20	Prozesuan (%20-39)
Profesional desbedinen hitzaldiak jasotzea azterna digitalaren garrantziaz jabetzeko.	Giza baliabideak	Profesionalak eta zuzendaritza	2024/06/20	Prozesuan (%80-99)
Ordenagailuaren erabilera sustatu arazoei aurre egiteko.	Baliabide digital eta teknologikoak.	Irakasleak	2024/06/20	Prozesuan (%60-79)
Eduki mota desberdinak sortzeko aplikazio desberdinak erabiltzea.	Baliabide digital eta teknologikoak.	Irakasleak	2024/06/20	Prozesuan (%40-59)

Helburua

Egileen eskubideak errespetatzeko, eskolan sortutako eduki digitalak modu egokian lizentzizatzea.

Deskriptorea	Epea	
EC 1.4 Erreminta eta eduki digitalek lizentziak dituzte hala behar denean	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.4 A1 Ikastetxeak gida bat argitaratu du egile-eskubideak, lizentziak eta zitazio-estandarrak garatze	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Klaustrokideei gogoraziko zaie sortutako edukiak lizentziatearen garrantzia.	Baliabide digital eta teknologikoak.	IKT arduraduna	2024/06/20	Prozesuan (%20-39)

Helburua

Egileen eskubideak errespetatzeko, irudi digital libreak erabiltzea.

Deskriptorea	Epea
EC 1.3 Jabetza intelektualeko eta copyright eskubideak errespetatzen dira	2024/06/20

Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.3 A1 Departamentuak/mailek/zikloak lineako ikaskuntzaren ingurune digitalean eskaintzen diren	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Klaustrokideei gogoraraziko zaie irudiak hartzean jabetza intelektuala errespetatzeak duen garrantzia.	Baliabide digital eta teknologikoak.	IKT arduraduna	2024/06/20	Hasita (%1-19)

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Baliabide banku bat eratzea, irakasle guztiok baliabide digitalak sarean sartuz, sortutakoak edota interneten aurkitu daitezkeenak eskura egoteko.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzak eta ezagutzak trukatzeko espero da	2024/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Barne lankidetzak sustatzea	Bai/Ez	Bai
Ezagutzak trukatzeko baliabide banku bat eratu da.	Bai/Ez	Bai
Baliabide bankua eguneratzen da.	Ehunekoetan	%10

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleentzako baliabide digitalen zerrenda bat sortzea gelan eskuragarri izateko.	Baliabide digital, teknologiko eta giza baliabideak.	Klaustroa	2024/06/20	Hasita (%1-19)
Zikloka edo mailaka elkartu eta jolas edo material digitalak prestatzeko.	Baliabide digital, teknologiko eta giza baliabideak.	Klaustroa	2024/06/20	Hasita (%1-19)
Irakasle guztien artean partekatutako karpeta bat sortzea, bertan irakasleok sortutako baliabide digitalak mailaka eta arloka sailkatuz	Baliabide digital, teknologiko eta giza baliabideak.	Klaustroa	2024/06/20	Hasita (%1-19)
Baliabide bankua eguneratzen joatea.	Baliabide digital, teknologiko eta giza baliabideak.	Klaustroa	2026/06/20	Detektatua

Helburua

Eskoletan arteko sarean parte hartzea proiektuak eta ikas egoerak partekatzen (Amaraura)

Deskriptorea	Epea	
EN 1.1 Ohikoa da pertsonalak sarean lankidetzan jardutea ezagutza adituak bateratzeko eta edukiak partekatzeko	2024/06/20	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.1 A1 Ikastetxeak erakundearen ikaskuntza-ingurune bat garatu du, beharrezko informazioa, sartu	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Amaraura baliabidea erabiltzea, gure baliabideak eskegi eta bertan daudenak hartzea.	Baliabide digital eta teknologikoak.	Irakasleak	2024/06/20	Detektatua

Helburua

Familiarekiko koordinazioa bultzatzea, teknologia berriekin zerikusia duten prestakuntza desberdinetarako sarbidea eskainiz, seme-alaben ikaskuntza-prozesuan eta irakasleen harremanetan parte-hartze aktiboa sustatzeko.

Deskriptorea	Epea
EN 1.4 Ezagutza trukatzeko jarduera eta ekitaldietan parte hartzea sustatzen da	2024/06/20

Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 1.4 A1 Ikastetxeak eremu digitalean esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk planifikatu ditu, ingl	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Herri mailan antolatzen diren teknologia berrien inguruko jardunaldi edo ikastaroen berri ematea familiei.	Baliabide digital eta pertsonalak.	Zuzendaritza eta IKT arduraduna	2023/12/20	Egina
Eskola-familia arteko komunikazioa emailez egitea.	Ikasleen emailak	Zuzendaritza eta klaustroa.	2024/06/20	Egina
Baliabide digitalen inguruko hitzaldi-formakuntza bat familiei eskaintzea.	Baliabide digitalak.	IKT batzordea	2024/06/20	Prozesuan (%20-39)

AZ Azpiegiturak

Helburua

Ikasleen kompetentzia digitala garatzeko Lh-ko 3. mailatik goragoko ikasle guztiek gailu digital bat izatea bermatzea.

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.5 Ezberdintasun eta inklusio digitalarekin erlazionaturiko arriskuei heltzen zaie	2024/09/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.5 A1 Ikastetxeak beharrezko protokolo bat du baliabide teknologikoetarako sarbidean ahulak dire	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Bekadunak ez diren ikasleei gailu digital bat ematea eskolan erabiltzeko.	Baliabide pertsonal eta baliabide teknologikoak.	Hezkuntza saila	2024/06/20	Egina

Helburua

Eskola komunitateko partaideek gailu digitalak zuzenki erabiltzeko eskolako wifi guneen eraginkortasuna eta funtzionamendua hobetzea.

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.6 Agerikoak dira laguntza teknikoa eta erabiltzaileari arreta ematea	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.6 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Informatikako kanpo arduradunei behin eta berriro eskatzea.	Baliabide pertsonalak.	Hezkuntzako teknikariak	2024/06/20	Egina

IB Ikastetxeko berariazkoak

Helburua

Eskolako ekintzen berri ematea egungo sare sozialen bitartez familiekiko komunikazioa hobetzeko.

Deskriptorea	Epea	
Komunikazio eredu estrategikoa baliatzen da.	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxeak ikastetxeko komunikazio plan bat garatu du, informazio eta komunikazio prozesuak garatu	Bai/Ez	Bai

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Sare sozialetako perfilen bitartez eskolako ekintzen berri ematea.	Baliabide digitalak.	Irakasleak	2024/06/30	Prozesuan (%60-79)



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Irakasleen arteko proiektu digitala eta digitalizazioa aurrera eramateko eskolako digitalizazio batzordea sortzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	Zuzendaritza taldeak.	Egina	
LG	Zuzendaritzak klaustrakideei helarazten dizkien lan, ataza edo komunikazioak tresna digitalen bidez egitea, komunikazioa eraginkorr eta azkarragoa izateko.	23-24 ikasturte bukaeran.	Portzentaia	IKT batzordeak	Prozesuan (%40-59)	
II	Teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aplikazioen bidez ikasgelan landutako edukia indartzea, ikasleen parte hartzea eta interesa handitzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Portzentaia	Irakasleak	Prozesuan (%20-39)	
GP	Digitalizazio batzorde buruek formakuntza jasotzea eta beste eskolekin harremanetan jartzea erabiltzen dituzten teknologia berrien berri izateko eta beharrezkoa ikusi ezker gure eskolan txertatzeko.	23-24 ikasturte bukaeran	Bai-ez	IKT batzordeak	Prozesuan (%20-39)	
GP	Eskolako IKT-baliabide erabilera aurrera jarraitzeko eta hauen erabilpena bermatzeko irakasleentzat barne formakuntza eskaintzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	IKT batzordeak	Hasita (%1-19)	
EJ	Ebaluzioa eraginkorragoa izateko, 2. eta 3. zikloko ikasleen ebaluzioetan tresna digitalak txertatzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Portzentaia	Irakasleak	Prozesuan (%60-79)	
EC	Ikasleek Lehen Hezkuntza bukatzen dutenean aurretik irteeran profilan zehaztutako kompetentzia digitalen garapena bermatzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	Irakasleak	Prozesuan (%40-59)	
EC	Egileen eskubideak errespetatzeko, eskolan sortutako eduki digitalak modu egokian lizentziatzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	Irakasleak	Hasita (%1-19)	

EC	Egileen eskubideak errespetatzeko, irudi digital libreak erabiltzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	Irakasleak	Detektatua	
EN	Baliabide banku bat eratzea, irakasle guztiok baliabide digitalak sarean sartuz, sortutakoak edota interneten aurkitu daitezkeenak eskura egoteko.	23-24 ikasturte bukaeran.	Portzentaia	Irakasleak	Hasita (%1-19)	
EN	Eskolen arteko sarean parte hartzea proiektuak eta ikas egoerak partekatzen (Amaraura)	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	Irakasleak	Hasita (%1-19)	
EN	Familiarekiko koordinazioa bultzatzea, teknologia berriekin zerikusia duten prestakuntza desberdinetarako sarbidea eskainiz, seme-alaben ikaskuntza-prozesuan eta irakasleen harremanetan parte-hartze aktiboa sustatzeko.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	Irakasle zein zuzendaritza taldea	Prozesuan (%40-59)	
AZ	Ikasleen kompetentzia digitala garatzeko Lh-ko 3. mailatik goragoko ikasle guztiek gailu digital bat izatea bermatzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	Zuzendaritza	Prozesuan (%80-99)	
AZ	Eskola komunitateko partaideek gailu digitalak zuzenki erabiltzeko eskolako wifi guneen eraginkortasuna eta funtzionamendua hobetzea.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	IKT Batzordea	Prozesuan (%20-39)	
IB	Eskolako ekintzen berri ematea egungo sare sozialen bitartez familiarekiko komunikazioa hobetzeko.	23-24 ikasturte bukaeran.	Bai-ez	IKT Batzordea	Prozesuan (%80-99)	